



MATERIALEN BILDUMA

Haur Hezkuntza | Mugimendu Autonomoa

Gorka Muñoz García
Irale R400

Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren onespena du. 2024/04/09

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| 1- Sarrera | 3 |
| 2- Bi urteko haurren ekosistemak | 4 |
| 2.1- Jolas aurreinbolikorako materialak..... | 5 |
| 2.2- Esploratzeko eta esperimendatzeko materialak | 9 |
| 2.3- Jolas logiko-matematikoetarako materialak..... | 13 |
| 2.4- Adierazpen grafikorako eta plastikorako materialak | 17 |
| 2.6- Jolas lasaietarako materialak | 24 |
| 3- Hiru urteko haurren ekosistemak..... | 27 |
| 3.1- Artea ekosistemako materialak..... | 28 |
| 3.1.1- Margotzeko gunea | 28 |
| 3.1.2- Modelatzeko gunea..... | 31 |
| 3.1.3- Sorkuntza plastikorako gunea | 34 |
| 3.2- Hizkuntza ekosistemako materialak..... | 36 |
| 3.2.1- Jolas sinbolikorako gunea..... | 36 |
| 3.2.2- Idazten hasteko gunea | 39 |
| 3.2.3- Liburutegia..... | 42 |
| 3.3- Eraikuntzak ekosistemako materialak | 45 |
| 3.3.1- Eraikuntzetarako gunea | 45 |
| 3.3.2- Mahai-jokoen gunea..... | 48 |
| 3.3.3- Esploratzeko eta esperimendatzeko gunea | 51 |
| 4.- Lau urteko haurren ekosistemak..... | 54 |
| 4.1- Artea ekosistemako materialak..... | 55 |
| 4.1.1- Margotzeko gunea | 55 |
| 4.1.2- Modelatzeko gunea..... | 58 |
| 4.1.3- Sorkuntza plastikorako gunea | 61 |
| 4.1.4- Mandalen gunea | 63 |
| 4.2- Hizkuntza ekosistemako materialak | 66 |
| 4.2.1- Jolas sinbolikorako gunea | 66 |
| 4.2.2- Idazten hasteko gunea | 69 |
| 4.2.3- Mahai-jokoen gunea..... | 72 |

| | |
|--|-----|
| 4.2.4- Liburutegia | 75 |
| 4.3- Eraikuntzak ekosistemako materialak | 81 |
| 4.3.1- Eraikuntzetarako gunea | 81 |
| 4.3.2- Mahai-jokoen gunea | 84 |
| 4.3.3- Zenbakikuntza lantzeko gunea | 87 |
| 5- Bost urteko haurren ekosistemak | 90 |
| 5.1- Artea ekosistemako materialak | 91 |
| 5.2- Hizkuntza ekosistemako materialak | 99 |
| 5.3- Eraikuntzak ekosistemako materialak | 111 |
| 6.- Bibliografia | 125 |

1- Sarrera

75/2023 DEKRETUAK, maiatzaren 30ekoak, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak zenbait aldageta proposatu ditu Haur Hezkuntza etaparako (HH). Hori dela eta, hainbat behar sortu dira, eta horiei erantzuteko, sare publikoko eskolen heren bat Mugimendu Autonomoa (MA) izeneko metodologia erabiltzen hasi da; izan ere, Berritzeguneez lan-ildo hori sustatzeko apustua egin dute, 75/2023 Dekretuak agintzen duena betetzeko modurik eraginkorrena delakoan.

MAren helburu nagusietako bat da haurren autonomia ahalbidetzea; ondorioz, aukera libreko espazioek, ekosistemek, berebiziko garrantzia dute. Ekosistemetan haurrek aukeratuko dute norekin, zer materialekin eta zertan jolastuko diren. Hortaz, ekosistema bakoitzean baliatuko ditugun materialak eta esku-hartzeak ongi planifikatu eta programatu behar dira; izan ere, aukeratutako materialek asmo pedagogiko jakin bat izan behar dute, eta asmo hori planifikatutako esku-hartzearen bidez betetzen saiatuko gara. Era berean, 75/2023 Dekretuak zehaztu bezala, asmo pedagogikoak HHko curriculumeko hiru arloetako konpetentzia espezifikoak garatu eta oinarritzko jakintzak landu behar ditu. Horiek guztiak neurtzeko, curriculumak berak ezarritako ebaluazio-irizpideak erabiliko ditugu.

Hori guztia kontuan harturik, lan honen asmoa da MAn balia daitezkeen materialen bilduma osatzea eta horiek erabiltzeko argibideak ematea. Bi urteko haurren ekosistemetak materiala jolasaren edo ekintzaren arabera multzokatu eta antolatuko da; hiru, lau eta bost urteko haurren ekosistemetako, aldiz, gunearen arabera. Materialen bildumak tauletan honako atal hauek jasoko ditu:

1. materialen izenak eta argazkiak
2. proposamenaren asmoa
3. berariazko esku-hartzea
4. euskara
5. konpetentzia espezifikoak
6. ebaluazio-irizpideak
7. oinarritzko jakintzak

Bilduma garatzeko orduan, CEIP Zabalzana HLHI hartu da erreferentziatzat; beraz, materialak kokatzeko, aintzat hartu da eskola horren antolamendua. CEIP Zabalzana HLHI Gasteiz hiriguneko hiru lerroko eskola da. HHn hiru, lau eta bost urtekoen espazioak hiru ekosistematan banatuta daude: Artea, Hizkuntza eta Eraikuntzak. Ekosistema horiek gunea antolatuta daudenez, materialak ere gune horien arabera sailkatuta daude. Bi urtekoen espazioak, berriz, beste era batera antolatuta daude; izan ere, bi urteko umeek beste ezaugarri psikologiko eta behar batzuk dituzte. Horrenbestez, materialak jolas edo ekintza motaren arabera sailkatuta daude, ekosistemak eta guneak ez daudelako hain definituak.

2- Bi urteko haurren ekosistemak

Bi urteko haurrak dira eskolan ditugun pertsona gazteenak; horietako batzuek, irailean eskolan hasten direnean, ez dituzte bi urte bete. Adin honetako haurrak zaugarriagoak dira nagusiagoak baino, bai alor fisikoan, bai psikiko-emozionalean. Horregatik, HHko lehen zikloko maila honetan, berebiziko garrantzia dauka haurraren egokitzapenak. Haurrak emozionalki estresatu egiten dira egokitzapenean: ezezagunak dira haientzat espazioak, ordutegiak, zaintzaileak, kideak eta abar. Eskolaren zeregin nagusia da estres hori arintzea; horregatik, haurrek erreferentziatzeko gela eta maisu-maistra finkoak izaten dituzte hasieratik, eta ez dira gelaz aldatzen psikomotritziterara edo bestelako ekintza berezietara joateko ez bada.

HHko zikloetako sailkapena ez dago ausaz egina, bi urtetik hiru urtera aldaketa psikologiko nabarmenak gertatzen dira, eta horiek hainbat behar sortzen dituzte haurren jardunean. Bi urteko haur gehienak jolas aurreinbolikoaren etapan daude; beraz, honako jolas hauetan aritzen dira, besteak beste:

- Hustu eta bete
- Agertu eta desagertu
- Materiala garraiatu
- Bildu eta sakabanatu
- Eraiki eta apurtu
- ...

Adituen arabera, garrantzitsua da jolas mota horiek ondo garatzea hurrengo etapetara pasatzeko. Jolasen etapetan aurrera egiteak psikologikoki ere aurrera egitea dakar. Horrela, egozentrismoaren etapan dauden haur hauek bakarkako jolasetatik jolas paraleloetara pasatzen dira, eta, ondoren, elkarrekintzetako jolasetan aritzen dira. Horrenbestez, pixkanaka-pixkanaka, elkarrekintzaren bidez, enpatia ere garatzen joaten dira eta horrekin batera baita pentsamendu abstrakturako gaitasuna ere.

Jolas aurreinbolikoez aparte, adin honetako haurrak beste jolas edo ekintza batzuetan ere aritzen dira, hala nola jolas logiko-matematikoak (puzzleak, segidak, bikoteak...) eta artearekin zerikusia duten adierazpen grafikoko edo plastikoko jolasak (marrazketa, eraikuntzak, modelatzea...). Diseinatutako ekosistemak aukera eman behar du ekintza edo jolas horietan aritzeko.

Euskararen didaktikari dagokionez, adin honetan maisu-maistren eredia oso inportantea da; izan ere, haur gehienek eskolan entzuten dute lehendabiziko aldiz hizkuntza hori, horregatik, euskara akademiko ahalik eta garbienean hitz egin behar diegu, eta, horretarako, intonazioa, erritmoa eta abiadura zaindu behar ditugu.

Ekosistemetan erabiliko ditugun materialak jolas edo ekintza hauen arabera sailkatuta daude:

- jolas aurreinbolikoak
- esplorazio- eta esperimantazio-jolasak
- jolas logiko-matematikoak
- adierazpen grafikoko eta plastikoko jolasak
- jolas sentorioromotorrak
- jolas lasaiak

2.1- Jolas auresinbolikorako materialak

MATERIALAK

- **Objektu naturalak:** pinaburuak, intxaurrak, harriak, almendrak, hostoak, txirlak, lehortutako frutak...
- **Edukiontzia:** material eta tamaina ezberdinetako katiluak, orgak, poltsak, zorroak...
- **Agertu eta desagertu jolaserako materialak:** oihalak, kartoizko kutxak, errezelak, gortinak, armairuak, tipia...

**PROPOSAMENAREN ASMOA**

- Jolas auresinbolikoak sustatzea.
- Zentzumenen bidez, hainbat materialen ezaugarriak ezagutzea eta haien arteko loturak ezartzen hastea.

BERARIAZKO ESKU-HARTZEA

- Galdera edo baieztapenen bidez, proposamenaren asmoa sustatu; adibidez:
 - Leire desagertu da. Badakizue non dagoen?
 - Ahmed, entzun bai, baina ez zaitut ikusten. Ezkutatu egin zara, ezta?
 - Pinaburuak nonbait ezkutatu dituzue. Bilatuko ditugu?
 - ...
- Haur bakoitzaren jarraipena egin.

EUSKARA

- Berariazko hiztegia:
 - objektuen koloreak
 - objektuen ezaugarriak
 - haurren ekintzak
 - gorputz-atalak
 - ezkutaketa jolasean erabiltzen diren aditzak
 - ...
- Baieztapenak; adibidez:
 - Pinaburuak alde batetik bestera eramaten ari zara.
 - Intxaur guztiak pote horretan sartu dituzu.
 - Harri txikiak alde horretan jarri dituzu.
 - Pinaburu guztiak ezkutatu dituzu.
 - Zure oina ikusten dut.
 - ...

| | | |
|--|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> Proposamenaren ebaluazioa egin. | <ul style="list-style-type: none"> Galderak; adibidez: <ul style="list-style-type: none"> Harri txikiak pote horretan sartu dituzu. Zer egingo duzu handiekin? Pisutsua al da eskuetan daukazun hori? Badakizu zer den? Pinaburuak desagertu dira. Bilatuko ditugu? Sara eta Malak, aurkitu dituzue lagunak? ... |
| <p>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</p> <p>Harmonian haztea</p> <p>1. Gorputzaren ezagutzan eta kontrola garatzen eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz norberaren irudi egokia eraikitzeko.</p> <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun logiko-matematikoak garatzeko.</p> <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> | <p>EBALUAZIO-IRIZPIDEAK</p> <p>Harmonian haztea</p> <p>1.1 Ekintzak eta erreakzioak egoera bakoitzera egokitzea inguruarekin izandako interakzio ludiko eta espontaneoen bidez, mugimendurako eta hautemateko dituen aukerak esploratuz eta zehaztasuna, koordinazioa eta intentsionalitatea hobetuz.</p> <p>1.3 Segurtasuna, nahitasuna eta kompetentziarekin lotutako sentimenduak adieraztea ekintza bakoitzean.</p> <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>1.1 Objektuen arteko loturak egitea oinarrizko ezaugarriak kontuan hartuta jakin-mina eta interesa adieraziz.</p> <p>1.2 Eguneroko esperientziarekin lotutako oinarrizko</p> | <p>OINARRIZKO JAKINTZAK</p> <p>Harmonian haztea</p> <p>A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> Norberaren eta inguruko pertsonen irudia deskubritzea eta ezagutzea. Desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea. Zentzumenen eta mugimenduaren bidez esploratzeko jakin-mina eta interesa. Munduaren zentzumenezko integrazioa hautematerako aukeren bidez. Esplorazioa eta esperientzia aktiboak. Mugimendu librea ikaskuntza- eta garapen-iturri gisa. Beste pertsona batzuekin eta beste objektu batzuekin harremana. Trebetasun berriak ikasteko inizatiba eta jakin-mina. Eskuztatzearen bidezko esperimentazioa eta pixkanakako begien eta mugimenduaren koordinazioaren kontrola objektu eta materialekin. Mugimenduaren eta posturaren moldaketa eta pixkanakako kontrola eguneroko bizitzako egoeretan. Egoera arriskutsuak identifikatu eta ekiditeko estrategiak. Jolasa ongizaterako eta gozamenerako ekintza propio gisa. Esploraziozko jolasa, zentzu-mugimenezkoa. <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>A. Gorputz-elkarrizketa ingurunearekin. Objektuak, materialak eta espazioak sormenez esploratzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ingurunearen eta horren elementuak esploratzeko jakin-mina eta interesa. |

| | | |
|---|--|---|
| <p>1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta asmoak adierazteko eta ingurune eskakizunei erantzuteko.</p> <p>2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitze.</p> <p>3. Hainbat lengoia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutzeko eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorren, pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.</p> | <p>kuantifikatzaile esanguratsuenak erabiltzea, eta jolasaren eta besteekiko interakzioaren testuinguruan erabiltzea.</p> <p>1.3 Oinarrizko nozio espazialei buruzko ezagutzak aplikatzea espazioetan kokatzeko, bai geldi, mugimenduan, norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.</p> <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>1.1 Beste pertsonekin lotura afektiboak sortzea eta indartzea, interesez interakzioetan eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan parte hartuta eta hainbat komunikazio-sistema erabilita.</p> <p>1.2 Komunikazio-egoeretan espontaneotasunez parte-hartzea, postura, keinuak eta mugimenduak hizketakideetara moldatuz.</p> <p>1.3 Beharrak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko komunikazio-estrategiak erabilita eta lengoia eta hizkuntza desberdinek eskaintzen dituzten aukerak</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Zentzumeneren bidez objektu eta materialak esploratzea. • Objektu eta materialen ezaugarriak edo atributuak identifikatzea. Esku-hartze desberdinek haiengan dituzten ondorioak. • Ordena-, korrespondentzia-, sailkapen- eta konparazio-erlazioak. • Oinarrizko zenbatzaileak testuinguruan jarrita. • Objektuekin eta norberaren gorputzarekin lotutako espazioari buruzko oinarrizko ezaugarriak. • Denborari buruzko oinarrizko ezaugarriak: aldaketa eta iraunkortasuna; segida eta aldibereotasuna; lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna. <p>B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurunea aztertzea jarrera hauekin: interesa, jakin-mina, irudimena, sormena eta harridura. • Jakintza berriak eta eraikuntza-prozesua: ezagunaren eta berriaren arteko harremanak eta loturak, aurreko esperientzien eta berrien artekoak; pertsona helduekin, maila berekoekin, ingurunearekin, etab. ikaskuntza garatzeko egiturak eta kalitatezko interakzioak. • Aldagaiak kontrolatzeko ereduak. Ikerkuntzarako estrategiak eta teknikak: saiakuntza-errore metodoa, behaketa, egiaztatzea, galderak egitea. <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>A. Asmoa eta komunikazio-interakzioen elementuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikatzeko nahia. Emozioa eta hurbiltasuna komunikazio-harremanaren oinarri gisa. • Aurpegiaren eta gorputzaren bidezko adierazpena: intentziosko keinuak, beharra, aldartea eta horiekin lotutako sentsazioak. • Kontaktuaren eta ikusmenaren bidezko trukea. • Tonuaren eta emozioaren eta posturaren bidezko lehenengo interakzioak. Aurpegi eta keinu bidezko adierazpenak. Gorputz-elkarrizketarekin. |
|---|--|---|

| | | |
|--|---|--|
| | <p>aprobetxatuta, hori guzti hori jakinminenez eta gozatuz.</p> <p>1.4 Gizarte-interakzioetan inizatiba izatea, komunikazio-egoerez gozatuz errespetuzko jarrerarekin.</p> <p>1.5 Lengoia eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzea hizkuntza-profil aniztasunarekiko interesa eta jakin-mina adieraziz.</p> <p>2.1 Ingurune estimulu eta mezuak interpretatzea eta era egokian erantzutea.</p> <p>3.1 Ahozko hizkuntza beharrak, sentimenduak, desirak, emozioak, bizipenak adierazteko erabiltzea, ekintzak erregulatzeko eta hainbat egoera eta testuingurutan interakzioak izateko.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio-jarrera adierazgarriak: elkarren arteko arreta, begirada erreferentziala eta helduaren emozio-adierazpenen ulermena eta horien aurreko erreakzioa. • Partekatze objektuak bitartekari gisa lehenengo interakzioen testuinguruetan. • Trukeak errazten dituzten estrategiak: hizketakideari begietara begiratzea, entzute adia eta hitz egiteko itzarotea. • Txanda elkarrizketan eta txandakatzea errespetua eta berdintasuna sustatzen dituzten komunikazio-egoeretan. <p>B. Hizkuntzak eta beren hiztunak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa. • Taldeko eta ingurune hizkuntza-errealitatea. Haien behar edo interesei erantzuten dieten hitzak eta esamoldeak. <p>C. Ahozko hitzezko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: soinuekin izandako lehenengo elkarrizketak, bokalizazioak eta interakzio-jolasak. • Beharren, bizipenen eta emozioen adierazpena. Ahozko hizkuntza norberaren jarrera erregulatzeko. • Hizkuntza-errepertorioa: komunikazio-egoerak, taldeko elkarrizketak, lexikoa eta solasa. • Soinu-adierazpena eta hitzen artikulazioa. Imitaziozko, hizkuntzaren bidezko eta entzumenaren prestaketarako jolasak. • Mundua eta mezuak ulertzea entzute aktiboaren bidez. Hiztegia. Errealitatea izendatzea. |
|--|---|--|

2.2- Esploratzeko eta esperimintatzeko materialak

MATERIALAK

- **Objektu naturalak:** pinaburuak, intxaurrak, harriak, mineralak, almendrak, hostoak, txirlak, lehortutako frutak, frutak, usain-belarrak...
- **Esploratzeko eta esperimintatzeko tresnak:** lupak, almaizak, matxardak, labanak...
- **Harea-tokirako materialak:** harea, ogi birrindua, irina, iraztontziak, hainbat tamainako ontziak, burruntzaliak...

**PROPOSAMENAREN ASMOA**

- Esplorazio- eta esperimintazio-jolasak sustatzea.
- Zentzumenen bidez, hainbat materialen ezaugarriak ezagutzea eta haien arteko loturak ezartzen hastea.

BERARIAZKO ESKU-HARTZEA

- Galdera edo baieztapenen bidez, proposamenaren asmoa sustatu; adibidez:
 - Zehatu dituzue arrosaren lore-hostoak almaizean?
 - Zer usain daukate?
 - ...
- Haur bakoitzaren jarraipena egin.
- Proposamenaren ebaluazioa egin.

EUSKARA

- Berariazko hiztegia:
 - objektu eta tresnen izenak
 - objektuen koloreak
 - objektuen formak
 - haurren ekintzak
 - ...
- Baieztapenak; adibidez:
 - Arrosaren lore-hostoak almaizean zehatu dituzu. Usain gozoa dute.
 - Kuartzoa luparekin behatzen ari zara.
 - ...
- Galderak; adibidez:
 - Menda zehatu duzue almaizean? Zer usain dauka?
 - Sar ditzakezu intxaurrak pote horretan matxardak erabiliz?

| KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK | EBALUAZIO-IRIZPIDEAK | OINARRIZKO JAKINTZAK |
|---|--|--|
| <p>Harmonian haztea</p> <p>1. Gorputzaren ezagutzan eta kontrola garatzen eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz norberaren irudi egokia eraikitzeke.</p> <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen, manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun logiko-matematikoak garatzeko.</p> <p>2. Metodo zientifikoaren prozedurak eta pentsamendu konputazionalaren trebetasunak garatzea pixkanaka, objektuak behatzeko eta manipulatzeko prozesuen bidez, ingurunea interpretatzen hasteko eta planteatzen diren egoerei eta erronkei sormenez erantzuteko.</p> | <p>Harmonian haztea</p> <p>1.1 Ekintzak eta erreakzioak egoera bakoitzera egokitzea inguruarekin izandako interakzio ludiko eta espontaneo bidez, mugimendurako eta hautemateko dituen aukerak esploratuz eta zehaztasuna, koordinazioa eta intenzionalitatea hobetuz.</p> <p>1.3 Segurtasuna, nahitasuna eta konpetentziarekin lotutako sentimenduak adieraztea ekintza bakoitzean.</p> <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>1.1 Objektuen arteko loturak egitea oinarrizko ezaugarriak kontuan hartuta jakin-mina eta interesa adieraziz.</p> <p>1.2 Eguneroko esperientziarekin lotutako oinarrizko kuantifikatzaile esanguratsuenak erabiltzea, eta jolasaren eta besteekiko interakzioaren testuinguruan erabiltzea.</p> <p>1.3 Oinarrizko nozio espazialei buruzko ezagutzak aplikatzea espazioetan kokatzeko, bai geld,</p> | <p>Harmonian haztea</p> <p>A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren eta inguruko pertsonen irudia deskubritzea eta ezagutzea. Desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea. • Zentzumenen eta mugimenduaren bidez esploratzeko jakin-mina eta interesa. Munduaren zentzumenezko integrazioa hautematerako aukeren bidez. • Esplorazioa eta esperientzia aktiboak. Mugimendu libre ikaskuntza- eta garapen-iturri gisa. • Beste pertsona batzuekin eta beste objektu batzuekin harremana. Trebetasun berriak ikasteko inizatiba eta jakin-mina. • Eskuztatzearen bidezko esperientziazioa eta pixkanakako begien eta mugimenduaren koordinazioaren kontrola objektu eta materialekin. • Mugimenduaren eta posturaren moldaketa eta pixkanakako kontrola eguneroko bizitzako egoeretan. • Egoera arriskutsuak identifikatu eta ekiditeko estrategiak. • Jolasa ongizaterako eta gozamenerako ekintza propio gisa. Esploraziozko jolasa, zentzu-mugimenezkoa. <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>A. Gorputz-elkarrizketa ingurunearekin. Objektuak, materialak eta espazioak sormenez esploratzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurunearen eta horren elementuak esploratzeko jakin-mina eta interesa. • Zentzumenen bidez objektu eta materialak esploratzea. • Objektu eta materialen ezaugarriak edo atributuak identifikatzea. Esku-hartze desberdinek haiengan dituzten ondorioak. • Ordena-, korrespondentzia-, sailkapen- eta konparazio-erlazioak. |

| | | |
|---|---|--|
| <p>3. Naturaren elementuak eta fenomenoak ezagutzea, eta naturan eragina duten ohiturekiko interesa agertzea, pertsonen bizitzan ingurunea modu iraunkorrean erabiltzeak, zaintzeak eta kontserbatzeak duen garrantzia jabetzeko.</p> <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta asmoak adierazteko eta inguruneke eskakizunei erantzuteko.</p> <p>2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeke.</p> <p>3. Hainbat lengoia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutuz eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorrean,</p> | <p>mugimenduan, norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.</p> <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>1.1 Beste pertsonekin lotura afektiboak sortzea eta indartzea, interesez interakzioetan eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan parte hartuta eta hainbat komunikazio-sistema erabilia.</p> <p>1.2 Komunikazio-egoeretan espontaneo-tasunez parte-hartzea, postura, keinuak eta mugimenduak hizketakideetara moldatuz.</p> <p>1.3 Beharrak, sentimenduak eta bizipenak adieraztea komunikazio-estrategiak erabilia eta lengoia eta hizkuntza desberdinek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuta, hori guzti hori jakin-minez eta gozatuz.</p> <p>1.4 Gizarte-interakzioetan inizatiba izatea, komunikazio egoerez gozatuz errespetuzko jarrerarekin.</p> <p>1.5 Lengoaia eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzea hizkuntza-profil aniztasunarekiko interesa eta jakin-mina adieraziz.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko zenbatzaileak testuinguruan jarrita. • Objektuekin eta norberaren gorputzarekin lotutako espazioari buruzko oinarrizko ezaugarriak. • Denborari buruzko oinarrizko ezaugarriak: aldaketa eta iraunkortasuna; segida eta aldiberekotasuna; lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna. <p>B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurunea aztertzea jarrera hauekin: interesa, jakin-mina, irudimena, sormena eta harridura. • Jakintza berriak eta eraikuntza-prozesua: ezagunaren eta berriaren arteko harremanak eta loturak, aurreko esperientzien eta berrien artekoak; pertsona helduekin, maila berekoekin, ingurunearekin, etab. ikaskuntza garatzeko egiturak eta kalitatezko interakzioak. • Aldagaiak kontrolatzeko ereduak. Ikerkuntzarako estrategiak eta teknikak: saiakuntza-errore metodoa, behaketa, egiaztatzea, galderak egitea. <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>A. Asmoa eta komunikazio-interakzioen elementuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikatzeko nahia. Emozioa eta hurbiltasuna komunikazio-harremanaren oinarri gisa. • Aurpegiaren eta gorputzaren bidezko adierazpena: intenziozko keinuak, beharra, aldartea eta horiekin lotutako sentsazioak. • Kontaktuaren eta ikusmenaren bidezko trukea. • Tonuaren eta emozioaren eta posturaren bidezko lehenengo interakzioak. Aurpegi eta keinu bidezko adierazpenak. Gorputz-elkarrizketarekin. • Komunikazio-jarrera adierazgarriak: elkarren arteko arreta, begirada erreferentziala eta helduaren emozio- adierazpenen ulermena eta horien aurreko erreakzioa. • Partekatze objektuak bitartekari gisa lehenengo interakzioen testuinguruetan. |
|---|---|--|

| | | |
|--|--|---|
| <p>pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.</p> | <p>2.1 Inguruneko estimulu eta mezuak interpretatzea eta era egokian erantzutea.</p> <p>3.1 Ahozko hizkuntza beharrak, sentimenduak, desirak, emozioak, bizipenak adierazteko erabiltzea; ekintzak erregulatzeko eta hainbat egoera eta testuingurutan interakzioak izateko.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Trukeak errazten dituzten estrategiak: hizketakideari begietara begiratzea, entzute adia eta hitz egiteko itzarotea. • Txanda elkarrizketan eta txandakatzea errespetua eta berdintasuna sustatzen dituzten komunikazio- egoeretan. <p>B. Hizkuntzak eta beren hiztunak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa. • Taldeko eta inguruneko hizkuntza-errealitatea. Haien behar edo interesei erantzuten dieten hitzak eta esamoldeak. <p>C. Ahozko hitzezko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: soinuekin izandako lehenengo elkarrizketak, bokalizazioak eta interakzio-jolasak. • Beharren, bizipenen eta emozioen adierazpena. Ahozko hizkuntza norberaren jarrera erregulatzeko. • Hizkuntza-errepertorioa: komunikazio-egoerak, taldeko elkarrizketak, lexikoa eta solasa. • Soinu-adierazpena eta hitzen artikulazioa. Imitaziozko, hizkuntzaren bidezko eta entzumenaren- prestaketarako jolasak. • Mundua eta mezuak ulertzea entzute aktiboaren bidez. Hiztegia. Errealitatea izendatzea. |
|--|--|---|

2.3- Jolas logiko-matematikoetarako materialak

MATERIALAK

- **Sailkatzeko, parekatzeko eta ordenatzeko materialak:** pinaburuak, intxaurrak, txirlak, berariazko sailkapenak egiteko jolasak...
- **Puzzleak:** 4-6 zati dituzten puzzleak, ahokatzen diren zatiak dituzten puzzleak...

**PROPOSAMENAREN ASMOA**

- Jolas logiko-matematikoak sustatzea.
- Hainbat material sailkatzea, parekatzea edota ordenatzea; haurrek asmatutako edo maisu-maistrak emandako irizpideen arabera.

BERARIAZKO ESKU-HARTZEA

- Galdera edo baieztapenen bidez, proposamenaren asmoa sustatu; adibidez:
 - Sar dezakezu makila bakoitza bere kolorea duen zuloan?
 - Topa dezakezu tximeletaren bikotekidea?
 - ...
- Haur bakoitzaren jarraipena egin.

EUSKARA

- Berariazko hiztegia:
 - objektuen koloreak
 - objektuen formak
 - haurren ekintzak
 - objektu eta tresnen izenak
 - ...
- Baieztapenak; adibidez:
 - Ikusten dut: gorriak gorriekin jarri dituzu.
 - Triangelua bere lekuan sartu duzu.
 - Puzzlea bukatzeko zati bakarra geratzen zaizu.
 - ...
- Galderak; adibidez:

| | | |
|---|---|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> • Proposamenaren ebaluazioa egin. | <ul style="list-style-type: none"> - Badakizu nola esaten zaion hiru ertz dituen forma horri? - Sar dezakezu makila bakoitza bere koloreko zuloan? - Badakizu hauetako zein den biribila? - ... |
| <p>KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</p> <p>Harmonian haztea</p> <p>1. Gorputzaren ezagutzan eta kontrola garatzen eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz norberaren irudi egokia eraikitzeke.</p> <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun logiko-matematikoak garatzeko.</p> <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren</p> | <p>EBALUAZIO-IRIZPIDEAK</p> <p>Harmonian haztea</p> <p>1.1 Ekintzak eta erreakzioak egoera bakoitzera egokitzea inguruarekin izandako interakzio ludiko eta espontaneoen bidez, mugimendurako eta hautemateko dituen aukerak esploratuz eta zehaztasuna, koordinazioa eta intentsionalitatea hobetuz.</p> <p>1.3 Segurtasuna, nahitasuna eta konpetentziarekin lotutako sentimenduak adieraztea ekintza bakoitzean.</p> <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>1.1 Objektuen arteko loturak egitea oinarrizko ezaugarriak kontuan hartuta jakin-mina eta interesa adieraziz.</p> <p>1.2 Eguneroko esperientziarekin lotutako oinarrizko kuantifikatzaile erabiltzea, esanguratsuenak erabiltzea,</p> | <p>OINARRIZKO JAKINTZAK</p> <p>Harmonian haztea</p> <p>A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren eta inguruko pertsonen irudia deskubritzea eta ezagutzea. Desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea. • Zentzumenen eta mugimenduaren bidez esploratzeko jakin-mina eta interesa. Munduaren zentzumeneko integrazioa hautematerako aukeren bidez. • Esplorazioa eta esperientzia aktiboak. Mugimendu librea ikaskuntza- eta garapen-iturri gisa. • Beste pertsona batzuekin eta beste objektu batzuekin harremana. Trebetasun berriak ikasteko inizatiba eta jakin-mina. • Eskuztatzearen bidezko esperientziazioa eta pixkanakako begien eta mugimenduaren koordinazioaren kontrola objektu eta materialekin. • Mugimenduaren eta posturaren moldaketa eta pixkanakako kontrola eguneroko bizitzako egoeretan. • Egoera arriskutsuak identifikatu eta ekiditeko estrategiak. • Jolasa ongizaterako eta gozamenerako ekintza propio gisa. Esploraziozko jolasa, zentzu-mugimenezkoa. <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>A. Gorputz-elkarrizketa ingurunearekin. Objektuak, materialak eta espazioak sormenez esploratzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurunearen eta horren elementuak esploratzeko jakin-mina eta interesa. • Zentzumenen bidez objektu eta materialak esploratzea. • Objektu eta materialen ezaugarriak edo atributuak identifikatzea. Esku-hartze desberdinek haiengan dituzten ondorioak. • Ordena-, korrespondentzia-, sailkapen- eta konparazio-erlazioak. |

| | | |
|---|---|--|
| <p>eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta asmoak adierazteko eta inguruneko eskakizunei erantzuteko.</p> <p>2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeke.</p> <p>3. Hainbat lengoaia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutuz eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorrean, pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.</p> | <p>eta jolasaren eta besteekiko interakzioaren testuinguruan erabiltzea.</p> <p>1.3 Oinarrizko nozio espazialei buruzko ezagutzak aplikatzea espazioetan kokatzeko, bai geldi, mugimenduan, norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.</p> <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>1.1 Beste pertsonekin lotura afektiboak sortzea eta indartzea, interesez interakzioetan eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan parte hartuta eta hainbat komunikazio-sistema erabilia.</p> <p>1.2 Komunikazio-egoeretan espontaneo-tasunez parte-hartzea, postura, keinuak eta mugimenduak hizketakideetara moldatuz.</p> <p>1.3 Beharrak, sentimenduak eta bizipenak adieraztea komunikazio-estrategiak erabilia eta lengoaia eta hizkuntza desberdinek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuta, hori guzti hori jakin- minez eta gozatuz.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko zenbatzaileak testuinguruan jarrita. • Objektuekin eta norberaren gorputzarekin lotutako espazioari buruzko oinarrizko ezaugarriak. • Denborari buruzko oinarrizko ezaugarriak: aldaketa eta iraunkortasuna; segida eta aldiberekotasuna; lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna. <p>B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurunea aztertzea jarrera hauekin: interesa, jakin-mina, irudimena, sormena eta harridura. • Jakintza berriak eta eraikuntza-prozesua: ezagunaren eta berriaren arteko harremanak eta loturak, aurreko esperientzien eta berrien artekoak; pertsona helduekin, maila berekoekin, ingurunearekin, etab. ikaskuntza garatzeko egiturak eta kalitatezko interakzioak. • Aldagaiak kontrolatzeko eredua. Ikerkuntzarako estrategiak eta teknikak: saiakuntza-errore metodoa, behaketa, egiaztatzea, galderak egitea. <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>A. Asmoa eta komunikazio-interakzioen elementuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikatzeko nahia. Emozioa eta hurbiltasuna komunikazio-harremanaren oinarri gisa. • Aurpegiaren eta gorputzaren bidezko adierazpena: intentziosko keinuak, beharra, aldartea eta horiekin lotutako sentsazioak. • Kontaktuaren eta ikusmenaren bidezko trukea. • Tonuaren eta emozioaren eta posturaren bidezko lehenengo interakzioak. Aurpegi eta keinu bidezko adierazpenak. Gorputz-elkarrizketarekin. • Komunikazio-jarrera adierazgarriak: elkarren arteko arreta, begirada erreferentziala eta helduaren emozio- adierazpenen ulermena eta horien aurreko erreakzioa. • Partekatze objektuak bitartekari gisa lehenengo interakzioen testuinguruetan. |
|---|---|--|

| | | |
|--|---|---|
| | <p>1.4 Gizarte-interakzioetan inizatiba izatea, komunikazio egoerez gozatuz errespetuzko jarrerarekin.</p> <p>1.5 Lengoia eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzea hizkuntza-profil aniztasunarekiko interesa eta jakin-mina adieraziz.</p> <p>2.1 Inguruneko estimulu eta mezuak interpretatzea eta era egokian erantzutea.</p> <p>3.2 Ahozko hizkuntza beharrak, sentimenduak, desirak, emozioak, bizipenak adierazteko erabiltzea; ekintzak erregulatzeko eta hainbat egoera eta testuingurutan interakzioak izateko.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Trukeak errazten dituzten estrategiak: hizketakideari begietara begiratzea, entzute adia eta hitz egiteko itzarotea. • Txanda elkarrizketan eta txandakatzea errespetua eta berdintasuna sustatzen dituzten komunikazio- egoeretan. <p>B. Hizkuntzak eta beren hiztunak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa. • Taldeko eta inguruneko hizkuntza-errealitatea. Haien behar edo interesei erantzuten dieten hitzak eta esamoldeak. <p>C. Ahozko hitzezko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: soinuekin izandako lehenengo elkarrizketak, bokalizazioak eta interakzio-jolasak. • Beharren, bizipenen eta emozioen adierazpena. Ahozko hizkuntza norberaren jarrera erregulatzeko. • Hizkuntza-errepertorioa: komunikazio-egoerak, taldeko elkarrizketak, lexikoa eta solasa. • Soinu-adierazpena eta hitzen artikulazioa. Imitaziozko, hizkuntzaren bidezko eta entzumenaren- prestaketarako jolasak. • Mundua eta mezuak ulertzea entzute aktiboaren bidez. Hiztegia. Errealitatea izendatzea. |
|--|---|---|

2.4- Adierazpen grafikorako eta plastikorako materialak

MATERIALAK

- **Margotzeko eta aztarna uzteko materialak:** paper jarraitua, A3 tamainako folioak, margoak, errotuladoreak, material naturalak (aztarna uzteko), tenpera, eskuetako margoak, hainbat pintzel, esponjak...
- **Modelatzeko eta eraikitzeko materialak:** plastilina, eraikuntzak egiteko kartoizko piezak, *LEGO* handiak...



PROPOSAMENAREN ASMOA

- Adierazpen grafikoa eta plastikoa sustatzea.
- Jolasetan zentzumena eta motrizitate xehea erabiltzea.
- Arteari hurbiltzea eta horretaz gozatzea.

BERARIAZKO ESKU-HARTZEA

- Galdera edo baieztapenen bidez, proposamenaren asmoa sustatu; adibidez:
 - Margotzeko kolore morea erabiltzen ari zara.
 - Forma biribila eman diozu plastilinari.
 - Zer da marraztu duzun hori?
 - ...
- Haur bakoitzaren jarraipena egin.
- Proposamenaren ebaluazioa egin.

EUSKARA

- Berariazko hiztegia:
 - objektuen koloreak
 - objektuen formak
 - objektu eta tresnen izenak
 - ...
- Baieztapenak; adibidez:
 - Margotzeko bi kolore erabili dituzu: berdea eta urdina.
 - Karratu bat marraztu duzu.
 - Dorre luze bat egiten ari zara.
 - ...
- Galderak; adibidez:
 - Zer kolore ari zara erabiltzen?
 - Zer objektu erabili duzu aztarna horiek egiteko? Pinaburuak?
 - Zenbat pisutako dorrea egin nahi duzu?
 - ...

| KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK | EBALUAZIO-IRIZPIDEAK | OINARRIZKO JAKINTZAK |
|--|--|--|
| <p>Harmonian haztea</p> <p>1. Gorputzaren ezagutzan eta kontrola garatzen eta hainbat estrategia eskuratzen joatea, haien ekintzak inguruko errealitatera era seguruan moldatuz norberaren irudi egokia eraikitzeke.</p> <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>1. Materialen, objektuen eta bildumen ezaugarriak identifikatzea eta haien arteko loturak ezartzea, esplorazioaren, zentzumen manipulazioaren eta tresna errazak erabiltzearen bidez, trebetasun logiko-matematikoak garatzeko.</p> <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>1. Eguneroko egoeretan komunikazio-errepertorioaren eta esplorazioaren bidez interakzioak izateko interesa adieraztea beharrak eta</p> | <p>Harmonian haztea</p> <p>1.1 Ekintzak eta erreakzioak egoera bakoitzera egokitzea inguruarekin izandako interakzio ludiko eta espontaneoen bidez, mugimendurako eta hautemateko dituen aukerak esploratuz eta zehaztasuna, koordinazioa eta intentzionalitatea hobetuz.</p> <p>1.3 Segurtasuna, nahitasuna eta kompetentziarekin lotutako sentimenduak adieraztea ekintza bakoitzean.</p> <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>1.1 Objektuen arteko loturak egitea oinarrizko ezaugarriak kontuan hartuta jakin-mina eta interesa adieraziz.</p> <p>1.2 Eguneroko esperientziarekin lotutako oinarrizko kuantifikatzaile esanguratsuenak erabiltzea, eta jolasaren eta besteekiko interakzioaren testuinguruan erabiltzea.</p> | <p>Harmonian haztea</p> <p>A. Gorputza eta gorputzaren kontrol progresiboa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren eta inguruko pertsonen irudia deskubritzea eta ezagutzea. Desberdintasunak identifikatzea eta errespetatzea. • Zentzumenen eta mugimenduaren bidez esploratzeko jakin-mina eta interesa. Munduaren zentzumenezko integrazioa hautematerako aukeren bidez. • Esplorazioa eta esperientzia aktiboak. Mugimendu librea ikaskuntza- eta garapen-iturri gisa. • Beste pertsona batzuekin eta beste objektu batzuekin harremana. Trebetasun berriak ikasteko inizatiba eta jakin-mina. • Eskuztatzearen bidezko esperientziazioa eta pixkanakako begien eta mugimenduaren koordinazioaren kontrola objektu eta materialekin. • Mugimenduaren eta posturaren moldaketa eta pixkanakako kontrola eguneroko bizitzako egoeretan. • Egoera arriskutsuak identifikatu eta ekiditeko estrategiak. • Jolasa ongizaterako eta gozamenerako ekintza propio gisa. Esploraziozko jolasa, zentzu-mugimenezkoa. <p>Ingurunearen aurkikuntza eta araketa</p> <p>A. Gorputz-elkarrizketa ingurunearekin. Objektuak, materialak eta espazioak sormenez esploratzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurunearen eta horren elementuak esploratzeko jakin-mina eta interesa. • Zentzumenen bidez objektu eta materialak esploratzea. • Objektu eta materialen ezaugarriak edo atributuak identifikatzea. Esku-hartze desberdinek haiengan dituzten ondorioak. • Ordena-, korrespondentzia-, sailkapen- eta konparazio-erlazioak. • Oinarrizko zenbatzaileak testuinguruan jarrita. • Objektuekin eta norberaren gorputzarekin lotutako espazioari buruzko oinarrizko ezaugarriak. |

| | | |
|---|---|--|
| <p>asmoak adierazteko eta inguruneko eskakizunei erantzuteko.</p> <p>2. Mezuak eta adierazpenak interpretatzea norberaren ezagutzetan eta baliabideetan oinarrituz ingurunearen eskakizunei erantzuteko eta ikaskuntza berriak eraikitzeke.</p> <p>3. Hainbat lengoaia eta hizkuntza erabiliz, horietako bakoitzaren kodeak ezagutzuz eta komunikazio-beharrei erantzuteko dituzten adierazpen-aukerak miatuz, mezuak modu eraginkorrean, pertsonalean eta sortzailean gauzatzea.</p> | <p>1.3 Oinarrizko nozio espazialei buruzko ezagutzak aplikatzea espazioetan kokatzeko, bai geldi, mugimenduan, norberaren gorputzarekin eta objektuekin jolastuz.</p> <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>1.1 Beste pertsonekin lotura afektiboak sortzea eta indartzea, interesez interakzioetan eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan parte hartuta eta hainbat komunikazio-sistema erabilia.</p> <p>1.2 Komunikazio-egoeretan espontaneotasunez parte-hartzea, postura, keinuak eta mugimenduak hizketakideetara moldatuz.</p> <p>1.3 Beharrak, sentimenduak eta bizipenak adieraztea komunikazio-estrategiak erabilia eta lengoaia eta hizkuntza desberdinek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuta, hori guzti hori jakin- minez eta gozatuz.</p> <p>1.4 Gizarte-interakzioetan inizatiba izatea, komunikazio egoerez</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Denborari buruzko oinarrizko ezaugarriak: aldaketa eta iraunkortasuna; segida eta aldiberekotasuna; lehenaldia, orainaldia eta etorkizuna. <p>B. Esperimentazioa ingurunean. Jakin-mina, pentsamendu zientifikoa, arrazoimen logikoa eta sormena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ingurunea aztertzea jarrera hauekin: interesa, jakin-mina, irudimena, sormena eta harridura. • Jakintza berriak eta eraikuntza-prozesua: ezagunaren eta berriaren arteko harremanak eta loturak, aurreko esperientzien eta berrien artekoak; pertsona helduekin, maila berekoekin, ingurunearekin, etab. ikaskuntza garatzeko egiturak eta kalitatezko interakzioak. • Aldagaiak kontrolatzeko ereduak. Ikerkuntzarako estrategiak eta teknikak: saiakuntza-errore metodoa, behaketa, egiaztatzea, galderak egitea. <p>Errealitatearen komunikazioa eta irudikapena</p> <p>A. Asmoa eta komunikazio-interakzioen elementuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikatzeko nahia. Emozioa eta hurbiltasuna komunikazio-harremanaren oinarri gisa. • Aurpegiaren eta gorputzaren bidezko adierazpena: intentziosko keinuak, beharra, aldartea eta horiekin lotutako sentsazioak. • Kontaktuaren eta ikusmenaren bidezko trukea. • Tonuaren eta emozioaren eta posturaren bidezko lehenengo interakzioak. Aurpegi eta keinu bidezko adierazpenak. Gorputz-elkarrizketarekin. • Komunikazio-jarrera adierazgarriak: elkarren arteko arreta, begirada erreferentziala eta helduaren emozio-adierazpenen ulermena eta horien aurreko erreakzioa. • Partekatze objektuak bitartekari gisa lehenengo interakzioen testuinguruetan. • Trukeak errazten dituzten estrategiak: hizketakideari begietara begiratzea, entzute adia eta hitz egiteko itzarotea. • Txanda elkarrizketan eta txandakatzea errespetua eta berdintasuna sustatzen dituzten komunikazio-egoeretan. |
|---|---|--|

| | | |
|--|---|--|
| | <p>gozatu errespetuzko jarrerarekin.</p> <p>1.5 Lengoaia eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen diren egoeretan parte hartzea hizkuntza-profil aniztasunarekiko interesa eta jakin-mina adieraziz.</p> <p>2.1 Ingurune estimulu eta mezuak interpretatzea eta era egokian erantzutea.</p> <p>2.2 Sentsazioak, sentimenduak eta emozioak adieraztea hainbat arte- eta kultura-adierazpenen aurrean.</p> <p>3.1 Ahozko hizkuntza beharrak, sentimenduak, desirak, emozioak, bizipenak adierazteko erabiltzea; ekintzak erregulatzeko eta hainbat egoera eta testuingurutan interakzioak izateko.</p> | <p>B. Hizkuntzak eta beren hiztunak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa. • Taldeko eta ingurune hizkuntza-errealitatea. Haien behar edo interesei erantzuten dieten hitzak eta esamoldeak. <p>C. Ahozko hitzezko komunikazioa. Adierazpena-ulermena-elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: soinuekin izandako lehenengo elkarrizketak, bokalizazioak eta interakzio-jolasak. • Beharren, bizipenen eta emozioen adierazpena. Ahozko hizkuntza norberaren jarrera erregulatzeko. • Hizkuntza-errepertorioa: komunikazio-egoerak, taldeko elkarrizketak, lexikoa eta solasa. • Soinu-adierazpena eta hitzen artikulazioa. Imitaziozko, hizkuntzaren bidezko eta entzumenaren-prestaketarako jolasak. • Mundua eta mezuak ulertzea entzute aktiboaren bidez. Hiztegia. Errealitatea izendatzea. <p>G. Hizkuntza eta adierazpen plastikoak eta bisuala</p> <ul style="list-style-type: none"> • Materialak, koloreak, testurak, teknikak eta plastikarako prozedurak. • Adierazpen plastikoak eta bisualak. Beste arte-adierazpen batzuk. |
|--|---|--|

2.5- Jolas sentsoriorretarako materialak

MATERIALAK

- **Igotzeko eta salto egiteko materialak:** mahaia, balkoia edo talaia, goma-aparrezko bloke gogorra, horma-barrak...
- **Aldapa lortzeko materialak:** goma-aparrezko aldapak, egurrez egindako aldapak...
- **Erortzen direnean minik ez hartzeko materialak:** koltxoneta, tatamia...

**PROPOSAMENAREN ASMOA**

- Jolas sentsoriorretarako sustatzea.
- Jolas horietan zentzumena eta motrizitate xehea zein lodia erabiltzea.
- Nozio espazialak lantzea, norberaren gorputzaren bitartez.

BERARIAZKO ESKU-HARTZEA

- Galdera edo baieztapenen bidez, proposamenaren asmoa sustatu; adibidez:
 - Goi-goian zaude.
 - Jaitsi zaitezke bakarrik?
 - Nolako saltoa egin duzun!
 - ...
- Haur bakoitzaren jarraipena egin.
- Proposamenaren ebaluazioa egin.

EUSKARA

- Berariazko hiztegia:
 - nozio espazialak
 - gorputz-atalak
 - haurren ekintzak
 - objektu eta tresnen izenak
 - ...
- Baieztapenak; adibidez:
 - Gora igo zara eta orain beherantz zatoz.
 - Belauniko erori zara.
 - Maldan behera irristatu zara.
 - ...
- Galderak; adibidez:
 - Belauniko erori zara. Eror zaitezke zutik?
 - Igo zaitezke maldan gora?

| | | |
|--|---|--|
| | | <ul style="list-style-type: none"> - Noraino iritsiko zara salto egiten duzunean? - ... |
